

EUSKAL AEko HEZKUNTZAREN KONTUA 2011

Euskal AEn biztanleko hezkuntza-gastua 1.671 euro izan zen 2011n

Gutizko gastua, 3.658 milioi, BPGren %5,5

Euskal AEko biztanleko gastua hezkuntzan 1.671 euro izan ziren 2011n, bi urte lehenago baino %0,6 gehiago, Eustaten datuen arabera. Azken hamar urteetan hezkuntza-gastua %5,5 hazi da urteko tasa metatuan. BPGren portzentajea, sortutako aberastasunaren %5,5 da.

2011n, 2009aren aldean gastua %1,7 hazten bada ere, moteldu egiten da aurrekoen aldean inbertsioa %13,9 jaitsi baitzen urte berberarekiko, zeinean hazkunde handia izan baitzen, eta gastu arrunta %3,1 hazi baitzen. Gutizko gastutik, 3.407 milioi gastu arrunta izan ziren (%93) eta 251 kapital eraketa gordina (inbertsioa, %7).

1. taula: Hezkuntzako gutizko gastua Euskal AE 2001-2011 (p) (milaka euro, %)

	GUZTIRA						Aldakuntza-tasa (%) 2011/2009	Urteko batez bestekoa aldakuntza-tasa metatua (%) 2001-2011(P)
	2001	2003	2005	2007	2009	2011(p)		
IRAKASKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUA	2.145.456	2.386.655	2.660.981	3.087.414	3.597.393	3.658.431	1,7	5,5
HEZKUNTZAKO GUZTIZKO GASTU ARRUNTA	2.002.875	2.238.574	2.474.334	2.915.333	3.305.322	3.406.937	3,1	5,5
KEGI. Kapital Eraketa Gordina irakaskuntzako erakundeetan	142.581	148.081	186.647	172.081	292.071	251.494	-13,9	5,8
Hezkuntzako gastua biztanleko (eurotan)	1.030	1.141	1.261	1.443	1.661	1.671	0,6	5,0
Hezkuntzako gastua BPGaren % gisa	4,9	4,9	4,7	4,7	5,6	5,5	-0,1 (*)	0,6 (*)

(*) puntu porzentualak

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzaren kontua

Euskal AEko Hezkuntzaren Kontuak hezkuntza-jarduera guztien gastua jasotzen du, arautuak zein arautu gabeak izan, bai hezkuntza-instituzioetan egina, bai beste edozein motatako zentro edo enpresetan.

2009ko datuen analisiak erakusten du finantzaketa zuzen publikoa dela nagusi (%86,7) hezkuntza-zerbitzuen gastuan, pribatuaren aldean; 2009. urterako dauzkagu daturik desagregatuenak.

2. taula: finantzaketa zuzenaren iturria. 2009 (%)

	FINANTZAKETA PRIBATUA 2009	FINANTZAKETA PRIBATUA 2009
GASTU ARRUNTA	81,5	18,5
Irakaskuntza-zerbitzuak	86,7	13,3
Beste jarduerak	40,7	59,3
KAPITAL GASTUA	73,4	26,6
HEZKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUA	80,9	19,1

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzaren kontua

Gainerako jardueren (garraioa, jantokia, egoitza, liburuak, materiala...) gastuan, finantzaketa zuzen pribatua handiagoa da: %59,3 pribatua, %40,7 publikoa. Kapital gastuetan: finantzaketa zuzen publikoa, %73,4; pribatua, %26,6.

Hezkuntza eta prestakuntza zerbitzuak guztizkoaren %81,6 izan ziren; jarduera osagarriak (garraioa, jantokia, egoitza...), 246 milioi, %6,9. Gastu arrunta ondokoekin osatzen da: liburuak eta materiala (%1,5); hezkuntza-sistemaren administrazio orokorra (%1,1); hezkuntza ikerketa eta berrikuntza (%0,9). Kapital eraketa gordina guztizkoaren %8,1 izan zen.


3. taula: hezkuntza gastua guztira, funtzioen arabera. Euskal AE 2009 (milaka euro, %)

	GASTUAK GUZTIRA	%
GASTU ARRUNTA	3.305.322	91,9
Hezkuntza eta prestakuntza zerbitzuak	2.935.148	81,6
Jantokia	146.090	4,1
Irakaskuntza Sistemaren Administrazio Orokorra	38.487	1,1
Garraioak	46.186	1,3
Luburuak eta eskolako materiala, etxeguneek erositakoak	52.267	1,5
Irakaskuntzako ikerketa eta berrikuntza	32.988	0,9
Beste gastu arrunt batzuk	54.156	1,5
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	292.071	8,1
HEZKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUA	3.597.393	100,0

Iturria: EUSTAT. Hezkuntzaren kontua

Nazioarteko alderaketa bi adierazle nagusirekin egin da: -Hezkuntza-instituzioetako gastu publiko eta pribatuaren adierazlea, denbora osoko baliokidetzan matrikulatutako ikasle kopuruarekiko, erosteko ahalmenaren parekotasunean (EAP) dolarretan neurturik, ELGAren definizioen arabera. Guztizko gastu publikoa (familientzako diru-laguntzak barne) BPGren portzentaje gisa. Euskal AEko alderaketa-kokapenerako biek ikuspegi osagarriak ematen dituzte, eta bien bilakaera positiboa izan da.

1. grafikoa: urteko eta ikasleko gastua hezkuntza-instituzioetan (2009). (\$) EAP




Iturria: EUSTAT. Hezkuntzaren kontua eta ELGA Education at a Glance. 2012

2009an Euskal AEn lehen hezkuntzatik hirugarren mailara bitarteko ikasleko gastu osoa hezkuntza-instituzioetan 12.048 (\$) EAP izan zen, Espainiakoaren (9.800), ELGAko batez bestekoaren (9.252) Europar Batasunekoaren (9.122), Frantziakoaren (9.913), Alemaniakoaren (9.779) gainetik; Suitzakoaren (14.176) azpitik. Euskal AEn, hezkuntza-etaparen arabera ikasleko gastua: haur-hezkuntzan 7.677 (\$) EAP; lehen, bigarren eta bigarrenaren ondokoan 10.982; hirugarrenean 15.860. Etapa guztietan Espainia, ELGA eta EBko batez bestekoen gainetik.

Guztizko gastu publikoa BPGren portzentaje gisa, Euskal AEn %4,9 da erreferentziako beste zenbaiten azpitik, 2009an: ELGAko batez bestekoa (%5,8), 27-EB (%5,4), Frantzia (%5,9), Alemania (%5,1). Espainiakoa (%5) ia berdina da. Halere, adierazle honen bilakaera hobe izan da Euskal AEn eta aldeak txikitu egin dira.

2. grafikoa: guztizko gastu publikoa hezkuntzan BPGrekiko (%)



Iturria: EUSTAT. Hezkuntzaren kontua eta ELGA Education at a Glance. 2012

Oharra: Hezkuntzaren kontuari buruzko informazio gehiago lortzeko, sartu ohar metodologikoan: [Ohar metodologikoa](#)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62
Euskal AEko hezkuntzaren kontuari buruzko prentsa-ohar gehiago
EUSKAL AEko HEZKUNTZAREN KONTUA-datu bankua